


# Errebotearen itzal estu eta luzea



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**A**masa-Villabona (Gipuzkoa) 1870eko hamarkada. Herriko plaza 45-50 metro inguru luze zen orduan eta, beraz, ez zen nahikoa errebotean aritzeko. Herritarrek plaza handitzeko eskatu zuten. Gerra Karlistetan erretako bi etxe bota eta, hala, 70 metro inguruko plaza eraberritu zuten. Berez, arrazoi nagusia zen azoka egunetan ez zegoela lekurik nahi beste ganadu sartzeko. Baina bide batez, errebotean, luzeko pilota jokoan, jarduteko aukera emango zuen handik aurrera gunee berriak. Ia mende eta erdi geroago, Errebote plaza eraberritzeko lanak oraintxe amaitu dituzte.

Errebotea pilota jokorik zaharrenetakoa da, frontisa erabiltzen duten aldaerak baino zaharragoa da bere jatorria. Baina gainerako modalitateak askoz ere zabalduagoak daude egun. Joko-eremu hain luzea behar izateak eragin du hori, besteak beste; Ipar Euskal Herrian errebote plaza gehixeago daude, baina Hegoaldean oso gutxi dira. Eta, gainera, jokoa arauak ez dira bat-batean ulertzekoak eta, hortaz, denbora behar da errebotea barnerratzeko eta gozatzeko.

Eta, hala ere, Villabonako plazak eutsi egin dio kirol jardun horri. Plazaren luzerak ez ezik, Teodoro Hernandorenak (1898-1994) ere izan zuen zerikusia horretan. Odontologo, politikari eta kultur-gile zizurkildarrak arlo askotan egin zuen



VILLABONA ETA HAZPARNEREN ARTEKO ERREBOTE PARTIDA 1948AN, ORAINTXE BERRITU DUTEN ERREBOTE PLAZAN.

lan. Dantza eta mendizale taldeak sortu zituen, nekazari sindikatu bat ere bai, euskarazko kazetaritza bultzatu zuen, Euskal Herriko I. Bertsolari Txapelketako antolatzaileetako bat izan zen... -Xabier Lasak 2008an argitaratutako biografia mardulean jasotzen dira Hernandorenak egindako guztiak-. Baina jardunik kutunetakoa izan zuen beti errebotea, bere ustez euskaltasunerako bidea baitzen.

1932an errebote-jokoaren lehen araudia idatzi eta argitaratu zuen, euskara erraz eta didaktikoan. Besteak beste, errebotean kintzeka eta jokoka kontatzeko delak jaso zuen (15,30, 40 eta jokoa)

luzeko pilota joko gehienetan bezala, ale-gia, tenisean bezala. Edo alderantziz esan beharko genuke tenisean errebotean bezala kontatzen dituztela puntuak, tenisa sortu baino lehen ere Euskal Herrian kintzeka kontatzen baitzen.

Teoriaz gain, praktikan ere sustatu zuen Hernandorenak errebotea. 1930ean Villabonako eta Hazparneko pilotarien arteko errebote partida antolatu zuen plaza horretan. Orduz geroztik, urtero, herriko festetan antolatzen da neurketa eta datorren San Inazio egunean 90. aldiz jokatuko dute bi herrien arteko norgehiagoka errebote plaza berrituan. ●

## Gurutzatuak ez ziren hain europarrak

**G**urutzadetan europar kristau zintzoak musulman fedegabe gaiztoen aurka aritu zirela esan izan da luzaro. Baina, zintzoen eta gaiztoen kontua eztabaidagarria izateaz gain, DNAk baieztatu berri du "gurutzatuak" ez zirela uste bezain europarrak.

*American Journal of Human Genetics* aldizkariako artikulu batek eman du Wellcome Sanger Institutuko Chris Ty-

ler-Smith buru izan duen ikerketaren emaitzen berri: XIII. mendeko gudu batean Sidonetik gertu -egungo Libanon-guduan hildako bederatzi gurutzaturen DNA aztertu eta ondorioztatu dute horietatik hiru soilik zirela europarrak -zehazki, italiar, frantziar eta euskal jatorrikoak-; lau Ekialde Hurbilekoak ziren, eta beste biek arabaso genetiko mistoak zituzten. ●



CLAUDE DOUMET-SERHAL